



## Andoni Espartak bloke eskaladako Espainiako Kopako bigarrena irabazi du Salamankan, maila nagusian haren lehen garaipena

- *Mikel Linacisoro hirugarren izan zen eta Kopako liderra da*
- *Mendi Eskiko Taldekako Espainiako Txapelketan Iñigo Martinez de Albornoz, Ander Gabiña eta Aitor Ajuria podiumera igo dira*
- *Mendi lasterketen selekzioko Julen Martinez de Estibariz eta Mayi Mujika 5. eta 6. ondoz ondo Espainiako Kopako lehen proban, Malagan*

**2018ko martxoak 26.** Bloke eskaladako (boulder) Euskal Selekzioko Andoni Espartak handia egin du! Espainiako Kopako bigarren proban nagusitu da, zirkuituko bigarrenetan, Salamankan. Nagusien mailan lortzen duen lehen garaipena, eta ez azkena, seguru!

Kopako lehena etxean, Bilbon, jokatu zenean ez zuen finalean sartzea lortu, baina arantza atzo atera zuen, finalean sartuz lehendabizi, eta berau irabazita gero. Itzela! Jubenila da oraindik, 16 urte ditu –Bittor anaiak 19-, eta bistan da lanketan segiz gero etorkizun oparoa duela.

Mikel Linacisoro -17 urte-, ere finalean aritu zen lehian eta hirugarren amaitu zuen. Kopako lehen proba, Bilbon jokatu zena, irabazi egin zuenez, lider jarraitzen du azken probaren faltan. Apirilaren 28an Plasencian erabakiko da aurtengo Espainiako bloke Kopa.

Datozen egunetan 10 eguneko kontzentrazioa egingo dute Esparta anaiek, Linacisorok, Eneko Carreterok eta Itziar Zabalak Parisen. Modalitate olinpikoak lantze a da helburua, Gianni Faggiana entrenatzailearen esanetara.

### ***Bloke eskaladako Euskal Selekzioaren 2018ko EGUTEGIA***

|                |                       |                                |
|----------------|-----------------------|--------------------------------|
| <b>MARTXOA</b> |                       |                                |
| 10             | Espainiako Kopa       | Bilbo, PIUGAZ                  |
| 25             | Espainiako Kopa       | Salamanca, Sala la Ola         |
| <b>APIRILA</b> |                       |                                |
| 28             | Espainiako Kopa       | Plasencia, Sala Cereza Wall    |
| <b>MAIATZA</b> |                       |                                |
| 12-13          | Espainiako Txapelketa | Barcelona, Climbat la Foixarda |

[Sailkapenak](#)

### **Mendi eskiko Taldekako Espainiako Txapelketan dominak**

Mendi eskiko denboraldiko azken proba Candanchun jokatu zen atzo, Taldekako Espainiako Txapelketa. Euskal ordezkariak hirutan igo ziren podiumera. Iñigo Martinez de Albornoz, Pablo Oderizekin (Nafarroako Federazioa) taldea osatuz, hirugarren sailkatu zen senior mailan, eta bigarren promesa mailan. Juniorretan, berriz, Ander Gabiña-Aitor Ajuria EMF-ko bikoia hirugarren sailkatu zen brontzezko domina irabaziz.

**Mendi lasterketen Espainiako Kopako lehena**

Malagan aritu ziren mendi korrikalariak. Espainiako Kopako lehenean, Trail Cara los Tajos-en, emaitza onak lortu zituzten:

- 5. Julen Martinez de Estibariz
- 6. Mayi Mujika
- 11. Iban Letamendi
- 14. Axier Alonso

Ander Iñarra ere bertan izan zen baina lasterketa utzi egin behar izan zuen arazo muskularrengatik.

Atzo, baita ere, Munduko Kopan arituko diren euskal selekzioko ordezkari bik lanean fin ari direla erakutsi zuten: Jokin Lizeagak Donostia-Hondarribia Tala Bidea lasterketa irabazi zuen, eta Oihana Azkorbebeitiak Sara Korrika Trail.

**Mendi Lasterketen Euskal Selektzioaren 2018ko EGUTEGIA**

|                |                       |  |
|----------------|-----------------------|--|
| <b>MARTXOA</b> |                       |  |
| 8              | Espainiako Kopa       | Trail Cara los Tajos, Alhaurin el Grande, Malaga |
| <b>APIRILA</b> |                       |  |
| 15             | Espainiako Kopa       | Garganta de los Infiernos, Jerte, Caceres        |
| <b>MAIATZA</b> |                       |  |
| 6              | Espainiako Kopa       | Panxampla, Alfara de Carles, Tarragona           |
| 27             | Munduko Kopa          | Zegama-Aizkorri                                  |
| <b>EKAINA</b>  |                       |  |
| 10             | Espainiako Txapelketa | Mabo, Borriol, Castellon                         |
| 16             | Munduko Kopa          | Livigno SkyMarathon (Italia)                     |
| 23             | Munduko Kopa          | Olympus Marathon, Dion (Grezia)                  |
| 24             | Espainiako Kopa       | Zumaia Flysch Trail                              |
| <b>UZTAILA</b> |                       |  |
| 1              | Munduko Kopa          | Buff Epic trail, Barruera, Lleida                |
| 29             | Munduko Kopa          | Comapedrosa Skyrace (Andorra)                    |
| <b>ABUZTUA</b> |                       |  |
| 5              | Espainiako Kopa       | Vistabella, Castellón                            |
| 25             | Munduko Kopa          | Matterhorn Ultraks, Zermatt (Suitza)             |
| <b>IRAILA</b>  |                       |  |
| 1              | Espainiako Ultra Txap | Valle de Tena, Panticosa                         |
| 1              | Munduko Kopa          | The Rut (Amerikako Estatu Batuak)                |
| 14             | Munduko Ultra Txap    | Ben Nevis Ultra (Eskozia)                        |
| <b>URRIA</b>   |                       |  |
| 13             | Munduko Kopa          | Limone Extreme (Italia)                          |

